



MIKEL IRIZAR
EUSKALGILEA
@mirizarintxaus

Ikaskuntzaren funtzioa

Bere mendeurrena zela-eta, Eusko Ikaskuntza (EI) erakundeak bi urte luzeko prozesua burutu zuen 2018an, unibertsitateetan, erakunde publikoetan eta gizartean dauden milatik gora aditu eta ariturekin. Helburua zen Euskal Herriaren etorkizunerako egitasmo bat zirriborratzea, 20/25 urteko perspektibarekin.

Prozesuaren emaitza Oñatin gizarteratu zen iazko azaroan, eta Euskal Herriko hiru erakunde nagusietako agintari gorrenek eman zioten babesa aurkeztutako egitasmo partekatuari. Ez dago une hone-tan maila bereko definizioa eta legitimitatea biltzen dituen herri proiekturik (Ikus <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/kongresua/dokumentazioa/eik-53/>).

Mendeurreneko kongresuan, Elk bere burua eskaini zuen duela ehun urte “sor-reran eman zitzaion eginkizuna molde berrituekin betetzeko: herri garapenera-ko begirada luzea lantzea, ezagutza eta berrikuntza erabilita, lankidetza estuan erakunde publikoekin, eragile politiko eta sozialekin, eta herritarrekin, politika pu-blikoen eta gizarte dinamiken mesedetan”.

Kongresura iristeko prozesuan Elk lortu duen partaidetza bikainak erakus-ten du lidergo hori aitortzen zaiola, eta sinesgarria dela erakundea biziberritze-ko egin den apustua. Orain eskura dau-

ka aliantza sistema oso bat eraikitzea, egitasmo partekatua garatzen lankide izan ditzakeen erakunde eta eragileekin, gizarte antolatuak eskatu ahala eran-tzunak garai eta molde egokietan eman ahal izateko.

Garrantzitsua da Elren funtzio berri-tu honen onarpena erabat barneratzea erakundeen eta eragileen partetik, fun-tzio banaketa logiko baten baitan: Elri dagokio epe luzeko markoak eraikitzea, eta haietatik abiatuta ekarpenak egitea exekuzioan dabiltzane, hauen egitekoan sartu gabe. Zenbat kasutan jardun-esparruen arteko muga lausoa izango da, bai-na ezinbestekoa da funtzio banaketa ar-gitzea konfiantza eraikitze, hori gabe ezin baita lankidetza iraunkorrik sortu.

Maila politiko-administratiboan joera izan badaiteke egungo hiru esparruak finkatzea eta horietatik abiatzea ekimen politikoak (EAEko autogobernu pone-tziarena, esaterako), joera horren arris-kua sahiestuko litzateke Euskal Herri mailako herrigintza dinamika indartsu bat eraikita; hau da, Elk ondutako egi-tasmo partekatua garatuz eta gauzatze bidean jarriz, behar diren lankidetza-sa-re publiko eta sozialak ehunduta. Kon-gresuan abiatu den dinamika indartzea eta egonkortzea da Euskal Herria eraiki-tzeko apusturik eraginkorra. ●



BEÑAT SARASOLA
IDAZLEA
@bsarasola

Estatista xaloak

Azken urteotan, Espainiako Esta-tuko lehia politikoan –Euskal Erdikoan bezalaxe–, boladan da pragmatismoaren aldarria. Trantsizioan hausturatik erreformarako bidea egin zuten saldoari egungo lau xentimoko populistak gehitu zaizkie, Iñigo Errejon buru dutela. Alabaina, egoera aski absur-dua da, Espainiako panorama politikoan ezer ez baitago xaloagoa pragmatista eta errealista izatea baino.

Pragmatista eta estatista autodeno-minatu askok aipatu izan dute maiz in-dependentzia desira zilegi izanik ere, gertakari burugogorrek erakusten du-

tela ez dagoela proiektu politiko hori baino gauza zentzugabeagorik. Egungo mundu globalizatuan independentzia absurdua dela, eta gainera, estatuen Eu-ropak sekula ez duela utziko barneko lu-rralde bat zatikatzen. Argudio pisuzkoak dirudite, baina berriki Kataluniako au-zian errelatorearen karietara sortutako espektakuluak ere beste zerbait erakus-ten digu, burugogorki horrek ere; hots, independentziaren proiektua ameske-ria hutsa den neurri berean dela *wishful thinking*-aren emaitza Espainia autono-mikoaren erreforma demokratizatzaile eta askatzailearen posibilitatea. ●